

eman ta zabal zazu




Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# OCULTO SENDERO

ELENA FORTÚNEN ELEBERRI AUTOBIOGRAFIKOA:  
EMAKUME BATEN *BILDUNGSROMAN*



Ane Uribetxeberria Azpiroz

Gradua: Itzulpengintza eta Interpretazioa

Ikasturtea: 2016-2017

Tutorea: Natalia Vara

Saila: Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpengintza eta Interpretazioa

## AURKIBIDEA

Laburpena .....	3
1. Sarrera.....	5
2. <i>Bildungsroman</i> literatura azpigeneroa. Gerturatze historiko eta teorikoa.....	7
2.1. <i>Bildungsroman</i> femeninoa historian zehar.....	10
2.1.1. <i>Bildungsroman</i> femeninoaren ezaugarri bereizgarriak.....	11
2.2. Eleberri autobiografikoa.....	13
3. <i>Oculto sendero</i> eleberria.....	15
3.1. Elena Fortúnen biografia.....	15
3.2. <i>Oculto sendero</i> .....	18
3.3. <i>Oculto senderoren</i> elementu autobiografikoak .....	18
4. <i>Bildungsroman</i> ezaugarriak <i>Oculto sendero</i> eleberrian .....	21
4.1. Heroiaren identitate galera .....	22
4.2. Heziketaren auzia .....	22
4.3. Gizartearen eragina heroia-aren garapen pertsonalean .....	23
4.4. Sexualitatearen arazoa.....	26
4.5. Heroiaren auto-ezagutzaren amaiera berantiar eta behartua .....	28
5. Ondorioak .....	29
BIBLIOGRAFIA .....	31

## Laburpena

Eskuartean duzuen lanaren xedea Elena Fortúnen *Oculto sendero* eleberri autobiografikoaren azterketa bat egitea da *bildungsroman* literatura azpigeneroan kokatzen dela baieztatzeko, izan ere, azpigeneroari aho batez dagozkion ezaugarriak oso bistakoak dira eleberrian. Hasierako sarreraz eta bukaerako ondorioez gain, lana hiru atal nagusitan dago banatuta: bi atal teorikoak dira eta bestea liburuaren azterketa.

Sarreraren ostean, bigarren atalean, *bildungsroman* literatura azpigeneroaren gerturatze historiko eta teoriko bat egingo da, azpigeneroaren jatorria eta sorreraren arrazoiak aipatuko dira labur eta bere ezaugarriak nabarmenduko dira bereziki. Ez nuke aipatu gabe utzi nahi atal hori garatzeko orduan liburu bat izan dudala batik bat bide-lagun, hark lagundu baitit *bildungsroman* azpigeneroaren lehen irudi bat jasotzen hasieran, eta korrontean gehiago sakontzen, ondoren. Gauzak horrela, derrigorrezko iruditu zait laburpen honetan aipatzea bigarren atala idazteko María de los Ángeles Rodríguez Fontelaren *La novela de autoformación. Una aproximación teórica e histórica al “bildungsroman” desde la narrativa hispánica* liburua hartu dudala gehienbat oinarritzat, *bildungsroman* azpigeneroaren inguruko lan bereziki osatua baita. Lehen gerturatze horretatik abiatuz, nire lanarekin bat datorren marko teoriko zehatzago bati helduko diot. Hala, bigarren ataleko lehen azpiatalean emakumeek idatzitako *bildungsromanen* inguruan arituko naiz, maiz gizonezkoenen oso bestelakoak direlako. Ondoren, bigarren azpiatalean, eleberri autobiografikoa definitu eta haren ezaugarriak aipatuko dira labur, batetik, *bildungsroman* azpigeneroa era borobil eta bikainenean garatzea ahalbidetzen duen generoa delako eta, bestetik, aztertuko dugun obra genero horretan bertan koka dezakegulako.

Behin *bildungsroman* azpigeneroa aurkeztuta, hirugarren atalean *Oculto sendero* eleberrian jarriko dut arreta. Hiru azpiatal desberdindu ditut: lehenengoan Elena Fortúnen biografia aztertuko da; ondoren, *Oculto sendero* eleberria aurkeztuko da eta, azkenik, eleberria autobiografikotzat jotzera bultzatzen gaituzten arrazoiak aurkeztuko dira, bigarren atalean azaldutako ezaugarriak oinarritzat hartuta eta eleberriko protagonistaren eta idazlea beraren biografia alderatuz.

Lanaren bigarren atalean plazaratutako ideiak izan dira laugarren ataleko zati praktikoa aurrera ateratzeko euskarri, bertan aipatutako ezaugarrietan oinarritu bainaiz *Oculto sendero bildungsroman* bat baieztatzeko. Horretarako, laugarren atalean banaka

aztertuko dut azpigeneroaren ezaugarri bakoitza eta ezaugarrien adibide gisa eleberriko hainbat esaldi ekarriko ditut lanera.

Amaitzeko, ondorioen atalean, eginiko azterketatik ateratako ondorioak aurkeztuko dira. Bestalde, azken orrietan lana burutzeko erabili den bibliografia dago eskuragarri.

**Hitz gakoak** *Bildungsroman* femeninoa | *Oculto sendero* | Elena Fortún | Eleberri autobiografikoa | Emakume idazleak

## 1. Sarrera

*Oculto sendero* Elena Fortún (1886-1952) idazle espainiarraren eleberria dugu. Fortún idazle ezaguna izan zen bere garaian eta 20ko hamarkadatik hasita Espainiako ehunka gaztetxok (eta ez hain gaztetxok) gozatu dute haren irudimenetik ateratako pertsonaia maitagarriez. Fortúnen pertsonaia ospetsuena, eta haurren artean kuttunena, Celia da eta idazlearen eleberri ezagunenak Celiaren (hasiera batean neskatila, azkeneko liburuetan dagoeneko emakume) ingurukoak dira: *Celia lo que dice*, *Celia en el colegio*, *Celia y sus amigos*, *Celia novelista*...

*Oculto sendero* liburu kuriosoagoa dugu. Eleberri autobiografiko hori ez da Fortúnen gainerako liburuen antzerakoa, ez da eleberri arrunt bat, ez Fortúnek idatzitako beste liburu soil bat. Argitaratu berria, 2016an ikusi zuen argia *Oculto senderok*, Fortún zendu eta 64 urte beranduago. Idatzi zuen garaian bere editoreari eman ez, eta bizitza osoan zehar ezkutuan gorde zuen idazleak eleberria. Zorionez (irakurleen zorionerako, bederen), hil ostean eleberriaren zirriborroa editore batzuen eskuetara iritsi zen eta haiek argitara ekartzea erabaki zuten. Liburu intimoa dugu *Oculto sendero*, emakume idazle ausart batek bere homosexualitatea bilatzeko eta ulertzeko idatzitako liburu introspektiboa. Argi dago Fortúnek bere buruarentzat idatzi zuela, nobelaren helburua ez baitzen “armairutik ateratzea”, ezta bere interes sexualak lau haizetara zabaltzea ere, bere burua hobeto ezagutzea baizik, ingurukoengandik “bereizten” zuen hori ulertzen saiatzea, edota, jasotako miseri eta tristurak idaztea, nolabaiteko askatasuna lortzeko, akaso. Ezin uka emakume bitxia izan zela Fortún, emakumea debekuz inguratuta zegoen garai hartan hegan egitera ausartu, eta hein batean lortu ere egin zuena, milaka emakumek gizarteak behartutakoak eta debekatutakoak burua makurtuta onartzen zituzten bitartean, bere ametsa lortzeko borrokatu zuena. Hala, eleberrian idazlearen bi aurpegiak ikus ditzakegu, bizitzan jasandako nahigabeen emaitzak biak: aurpegi berritzailea, apurtzailea, eta ameslaria bata, eta kontserbadorea eta gizarteak esandakoari men egiten diona, bestea.

Liburu argitaratu berria izanik, ez dira ugari *Oculto senderoren* inguruko azterketak eta ikerketak, Elena Fortúnen bizitzaren eta bere gainerako lanen inguruan dauden analisi, azterketa, liburu eta artikuluko mordoekin alderatzen baditugu behintzat. Hori kontuan hartuta, interesgarri iruditu zitzaidan eleberria aztertzea. *Oculto sendero*

*bildungsroman* adibide bikaina denez, azpigenero horretatik abiatuz aztertzea erabaki nuen. Haatik, ez nuke gaien gehiago sakondu nahi, aldeztatik aipatu gabe ez naizela inongo aditua, eta lanarekin hasi baino lehen *bildungsroman* azpigeneroaz ezer gutxi nekiela eta *Oculto sendero* eleberria sekula irakurri gabea nuela. Gainera, nabarmendu nahiko nuke lanaren zati teorikoa egiteko beste aditu batzuen hitzak eduki baditut oinarri, azterketa kritikorako nire irakurketa propioan oinarritu naizela. Hala, aurrera egin aurretik, argi utzi nahi dut aditu ez naizenetik, nik neuk egindako analisisia eta ateratako ondorioak ez dutela inolaz ere guztiz zehatzak edo ziurrak izan, baina une oro saiatu naizela ahalik eta azterketa argi eta lan txukunena egiten.

## 2. *Bildungsroman* literatura azpigeneroa. Gerturatze historiko eta teorikoa

Lehen atal honen helburua *bildungsroman* deiturikoaren gerturatze historiko eta teoriko bat egitea da. Horretarako, eta laburpenean esan moduan, María de los Ángeles Rodríguez Fontelaren *La novela de autoformación. Una aproximación teórica e histórica al “bildungsroman” desde la narrativa hispánica*<sup>1</sup> liburuan oinarritu naiz bereziki.

*Bildungsromana* narrazioaren azpigenero bat da eta haurtzarotik heldutasunerako trantsizioa irudikatzeari deritzo, hots, pertsonaia batek bizitzan zehar duen eboluzio eta garapen fisiko, moral, psikologiko eta soziala azaltzeri (1996: 29-54). Karl von Morgenstern Dorpatoko unibertsitateko irakasle eta filologoak sortu zuen *bildungsroman* neologismoa 1810ean, unibertsitatean eman zuen eskola batean erabiltzeko. Aipatutako irakasleak 1819an eta 1820ean egin zituen bi konferentzietan terminoa erabili zuen berriz ere, eta handik aurrera literatur munduan zabaltzen hasi zen (Jost Rodríguez Fontelan 1996: 34). Aurrerantzean *bildungsromanen* aitzindari gisa ezagutuko zen obra izendatzeko sortu zen: Goetheren *Wilhelm Meisters Lehrjahre* eleberria. Handik aurrera (lehenago ere azpigeneroaren ezaugarriak zituzten lanak idatzi baziren ere) *bildungsroman* eleberriak Europan zehar zabaldu ziren XIX. eta XX. mendeetan zehar, Goetheren lana eredutzat hartuz (1996: 34). Terminoren morfologiari dagokionez, *Roman* hitzak eleberri esan nahi du alemanez, eta *Bildung* hitza instituzionalki *Erziehung*-aren (Euskal Herrian lehen-hezkuntzari legokiokkeena) ondoren datorren ikasketa-denboraldiaren izena da. Hala ere, oro har hartuta, alemanezko *Bildung* terminoak askoz esanahi zabalagoa du, terminoaren baitan “ikasketa”, “heziketa”, “prestakuntza” eta “sorkuntza” kontzeptuak ere baitatoz. Kontzeptu horiek guztiek bikain borobiltzen dute *bildungsromanaren* helburua, azpigeneroa norberaren ikasketan, heziketan eta prestakuntzan oinarritzen delako, baita norbere identitatearen sorkuntzan ere. Literatura desberdinen artean ohikoa den bezala, kontzeptua beste herrialdeetako literaturetara ere zabaldu zen eta Europako hizkuntza nagusienek terminoaren itzulpenak sortu zituzten. Hala, ingelesez *novel of formation*,

---

<sup>1</sup> Atal honetako hemendik aurrerako aipu guztiak María de los Ángeles Rodríguez Fontelaren *La novela de autoformación. Una aproximación teórica e histórica al “bildungsroman” desde la narrativa hispánica* liburutik ateratakoak dira, ez bada bestelakorik zehazten.

*novel of education* edota *coming of age story* izenak ditugu, frantsesez *roman d'apprentissage*, *roman de formation* edota *roman d'éducation* terminoak, eta gaztelaniaz *novela de formación* o *novela de aprendizaje*. Nolanahi ere, ingelesezko, frantsesezko eta gaztelaniazko itzulpenek ez dute alemanezko terminoaren esanahi guztia azaltzen. Hori dela eta, sarri termino alemaniarra mailegutzen da (1996: 29-30). Euskaraz oraindik ez da terminorik finkatu eta, beraz, *bildungsroman* jatorrizko izena erabili ohi da.

*Bildungsroman* kontzeptuaren definizio hertsia bat ematera, testu horien elementu komunak aztertuko ditut. Testu guztiek ez dituzte zertan elementu horiek guztiak eduki, baina sarri azaltzen diren ezaugarriak dira. Hasi baino lehen, aipatu nahiko nuke literatura kritiketan *bildungsroman*etako pertsonaia nagusia maiz “heroi” izenez ere adierazten dela eta, hortaz, lan honetan ere aurrerantzean bi terminoak erabiliko dira.

*Bildungsroman*en ezaugarri nagusia pertsonaia bakar baten bizitzaren jarraipena da. Pertsonaiak bizitzan zehar duen mailaz mailako garapena kontatzen da eta nola pixkanaka bere burua ezagutzen, identitatea jorratzen eta gizartean duen lekua aurkitzen duen, nerabegarotik heldu den arte (Hirsch 1979: 206-208). Norberaren garapen hori esperientzia jarraipenen bitartez adierazten da, haurtzaroari begirada azkar bat botaz eta familian, hezkuntzan, laguntasunean eta amodioan arreta jarriz, hori guztia bilaketa espiritual eta filosofiko bati lotuta (Labovitz 1986: 246). Heziketa edo garapen hori heroiak dagoeneko haurtzaroa eta lehen nerabegaroa atzean utzi dituen hasten da. Nolanahi ere, guztiz onartua dago, eta askotan beharrezkoa ere izan ohi da, liburuen hasieran haurtzaroko bizipenak azaltzea, norbanakoaren prestakuntza prozesua ulertzeko beharrezkoa bada eta istorioaren koherentziak hala eskatzen badu (1996: 55-98).

Hala ere, norberaren identitatea ez da jarduera mental soilaren fruitua, bizipenen eta bizitzako esperientzia desberdinen inguruko hausnarketa baizik (Descartes Rodriguez Fontelan 1996: 232). Hori kontuan hartuta, heroiaren auto-formazioak inguru sozialean du oinarria, hots, inguratzen dituen kanpoko egoerak eta baldintza sozialak, politikoak eta ekonomikoak pertsonaiaren izaeran, heziketan eta sorkuntzan eragiten dute eta bere identitatea bilatzera bultzatzen dute. Heroiak gizarte egoerak eragindako deabruak ditu barnean eta horiek uxatze aldera, bere identitatea bilatzen hasten da, munduarekin duen



harremana ardatz hartuta. Nolanahi ere, “abentura” horretan errealtatearen aurka egiten du talka eta errealtate bortitz horri aurre egin behar dio (1996: 29-54). Errealtate horretan sarri pertsonaiaren familia egon ohi da, izan ere, familia heroia-aren desiren aurka egoten da maiz eta, bereziki, ideia berrien aurka (Labovitz 1986: 3-4). Garaiko pentsamendua ere izaten du heroia-ak aurre egin beharreko oztopo. Orokorrean pertsonaia gatazkan egoten da bere aurreko belaunaldiekin, ingurukoek pentsatzen dutenarekin eta gizartean normaltzat eta arautzat dauden dogmekin. Kanpoko errealtatearekin duen borroka horren baitan bere izaera jorratzen joaten da eta zenbait esperientzien bidez, hazten eta auto-ezagutzen doa eta. Amaieran, bere burua eta munduan duen funtzioa aurkitzen du (1996: 29-54).

Inguruan duen errealtatearekiko desadostasunek eta bere benetako izaera aurkitzeko nahiak etxetik goiz alde egitera bultzatzen du heroia bere bidea bakarka jarraitzeko, askotan oraindik nerabe denean. Gainera, eskola oso etsigarria izan ohi da pertsonaia haurra denean eta inguruan duen mundura zabaltzen hasi ahala heziketa aukera desberdinak topatzen ditu. Hala, heroia-aren benetako hezkuntza kokaleku berri batean hasi ohi da, sarri hiriko zonalde batean, bere herriko pentsamendu atzerakoitik ihes egiteko ahaleginean (Labovitz 1986: 3-4).

Maiz askotan agertzen den beste elementu bat *bildungsroman*aren amaiera behartua da. Amaiera zoriotsua dute, baina bat-batekoa, eta irakurleek ez dute frogarik protagonistak bere buruaren jabe sentitzea lortu duen ala ez jakiteko. Izan ere, gizakiaren bizitza etengabeko auto-eraldaketa bat da eta norberaren identitatea bizitza osoan zehar zehazten da. Aldiz, eleberriko munduak zatikako eraldaketa bat edukitzeko aukera soilik eskaintzen du: protagonistaren bizitza hasten denetik eleberria bukatzen den punturaino, eta hortik aurrerako eraldaketaren berririk ez dugu (1996: 35-50).

*Bildungsroman*en izaerak gogoeta sorrarazten duenez, liburu horiek hein batean didaktikoak direla ere esan dezakegu. Heroiak bere burua ezagutzen eta sortzen duen aldi berean, autoreak eta irakurleak heziketa prozesu horretan parte hartzen dute heroia-aren esperientzien bidez. Hortaz, eleberriak irakurleak hezteko helburua du, auto-ezagutza prozesua ez duelako soilik liburuko pertsonaiak jasaten, baita idazle eta irakurleak ere (1996: 29-54).

Amaitzeko, interesgarri deritzot aipatzea *bildungsroman*aren lortezintasunaren teoria. *Bildungsroman* perfektuan heroia-aren esperantzek eta desirek, alde batetik, eta

munduko errealitateak, bestetik, sortzen duten kontradikzioak bukaera harmoniko bat eduki beharko luke. Nolanahi ere, askotan protagonistak ez du niaren eta munduaren arteko konfliktoa era positibo batean gainditzea lortzen, bere nahien eta errealitatearen arteko adostasuna ezinezkoa delako. Beraz, azkenean protagonistak bi aukeren artean erabaki behar du: bere esperantzak eta desirak sakrifikatu eta gizartearen inposizioei men egitea ala nia munduko errealitateen gainetik jartzea (Saariluoma Rodriguez Fontelan 1996: 37).

## 2.1. *Bildungsroman* femeninoa historian zehar

Goian aipatu bezala, *bildungsromanak* XIX. eta XX. mendeetan izan zuen loraldia eta Europako herrialdeetan geroz eta idazle gehiago hasi ziren Goetheren *Wilhelm Meisters Lehrjahre* eleberria eredutzat hartu eta *bildungsromanak* idazten. Tamalez, garai haietako eleberriei erreparatuko bagenie, nekez aurkituko genuke *bildungsromanetan* emakume heroirik. Emakumeen lumatik ateratako literatura ezkutatua eta isildua izan da eta gertakari horren arrazoia argi dago: historian zehar emakumearen bizitza etxe barrura mugatu da, eta gizartetik, ekonomiatik eta politikatik at egotera behartua izan da. XX. mendean emakumeak gizartean zuen parte hartzea pixkanaka zabaltzen hasi zen eta pentsatzekoa da garapen horrek garaiko literaturan isla edukiko zuela. Hala ere, errealitateak beste aurpegi bat erakusten digu, XX. mendeko emakumeek idatzitako *bildungsromanen* kopurua oso urria baita (Labovitz 1986: 1-2).

Historian zehar kritikari, idazle eta literatura aztertzaile asko izan dira *bildungsromana* definitu dutenak eta definizio askotan heroia (idazlea bezala) gizonezkoztat jotzen da aurretiaz. Wilhelm Dilthey-en definizioa dugu horren adibide: “(In a *bildungsroman*) a young male hero discovers himself and his social role through the experience of love, friendship, and the hard realities of life” (Dilthey Labovitz 1986: 2). Horrek guztiak ez du esan nahi emakumeen *bildungsromanik* existitzen ez denik, egon badaude eta horren lekuko dira XIX. mendeko Charlotte Brontëren *Jane Eyre* edota XX. mendeko Simone de Beauvoir-en *Mémoires d'une jeune fille rangée*. Edonola ere, gizonezkoek idatzitako edota gizonezkoek buruzko eleberrieekin alderatuz, emakumeen presentzia nabarmen txikiagoa da literaturaren historian. Guztiarekin ere, garaia geroz eta modernoagoa, oraindik eta emakume gehiagok eduki dute idazteko ausardia (edo aukera), eta geroz eta istorio gehiagotan dira emakumezkoak protagonista.

Esan bezala, beraz, fikziozko emakume heroiaren sorrera berantiarraren arrazoia emakumeak Europako kulturaren eduki dituen mugak eta debekuak izan dira, izan ere, emakumeak ez baitu *bildungsroman* batean irudikatua izan litekeen garapen bat edukitzeko aukerarik izan bizitza errealean, ezta idazle izateko aukerarik ere (Labovitz 1986: 245). Gerda Lerner historiagilearen hitzetan:

Women have been left out of history not because of evil conspiracies of men in general or male historians in particular, but because we have considered history only in male-centered terms. We have missed woman and their activities (Lerner Labovitz 1986: 245).

Hala ere, esanenez goian aipatutako emakumezkoen *bildungsromanak* ez direla guztiz *bildungsromanak*, baizik eta saiakera hutsak. Izan ere, XVIII. eta XIX. mendeetako eleberrietako emakumezko heroiek, bizitza errealeko emakumeen gisa, gizarteak inposatutako “irudi femeninoa” transmititu behar zuten eta horrek ez zien beren niaren garapen osoa egiten uzten. Gainera, XVIII. eta XIX. mendeetan zehar Europako emakume ezkongabeen helburu gorena senar on bat lortzea zen. Hori dela eta, haien inguruko istorioak protagonistaren ezkontzarekin bukatzen ziren sarri, emakumearen auto-ezagutza guztia helburu hori burutzen duen egunean bertan bukatuko balitz bezala. Horrek *bildungsromanaren* benetako izaera apurtzen du, pertsonaiak ez baitu guztizko heziketa edo eraldaketa lortzen (Labovitz 1986: 3-5). Aipatutako guztia kontuan hartuta, esan dezakegu emakumearen *bildungsromana* ez zela benetako errealitate bihurtu XX. mendera arte:

This new genre was made possible only when *Bildungsroman* became a reality for women, (...). When cultural and social structures appeared to support women's struggle for independence, to go out into the world, engage careers, in self-discovery and fulfillment, the heroine in fiction began to reflect these changes (Labovitz 1986: 6-7).

### **2.1.1. *Bildungsroman* femeninoaren ezaugarri bereizgarriak**

Jarraian emakumeen *bildungsromanen* ezaugarriei erreparatuko diegu. Ezaugarriok Ester Kleinbord Labovitz *The Myth of the Female Heroine. The Female Bildungsroman in the Twentieth Century*. Dorothy Richardson. Simone de Beauvoir. Doris Lessing. Christa Wolf<sup>2</sup> liburutik atera dira nagusiki. *Bildungsroman* femeninoak

---

<sup>2</sup> Atal honetako hemendik aurrerako aipu guztiak Ester Kleinbord Labovitz *The Myth of the Female Heroine. The Female Bildungsroman in the Twentieth Century*. Dorothy Richardson. Simone de Beauvoir. Doris Lessing. Christa Wolf liburukoak dira.

gizonezkoen ezaugarri berak partekatzen dituen arren, baditu bere ezaugarri propioak ere, hain zuzen ere historian zehar emakumeak jasandako baztertzeak eta zapalkuntzak eragindakoak. Hala, emakumeak protagonista dituzten liburuak bi ahotsetako diskurtsoak dira, ahots isilduaren edo zapalduaren (emakumezkoaren) eta ahots nagusiaren eta zapaltzailearen (gizonezkoaren) diskurtso sozialak, literalak eta kulturalak (1986: 257).

*Bildungsroman* femeninoen eta maskulinoen arteko desberdintasun nagusia emakumearen identitate falta da. Emakume izateak zenbait ezaugarri zekartzan (eta dakartza) berekin: obediente, fidela, atsegina, gozoa eta femeninoa izan behar du. Emakumetasun ezaugarri horiek haurtzarotik hasi eta bizitza osoan zehar eskatzen eta agintzen zaizkio, bere benetako identitatea guztiz ezabatuz, eta ez zaio askatasunik ematen bere burua ezagutzeko eta bere benetako izaera aurkitzeko eta garatzeko. Hori dela eta, gizonezko heroiak gizartearen aurka egiten duen bitartean, bere gizontasuna etsaiak eta dragoiak hilez aldarrikatuz, emakumeak aipatutako emakumetasun horren aurka egin behar du, bere benetako izaera eta gizartean duen benetako rola definitzeko gai izan baino lehen. *Bildungsroman* femeninoetan argi ikusten da txikitako norbere identitate galera hori, sarri inguruko helduek bultzatua edo behartua izaten dena. Ondoren, nerabezaroan eta gaztaroan, emakume horiek beren benetako identitate ezeztatu hori berreskuratzen saiatuko dira, beren buruaren kontrola, norberaren garapena eta askatasuna lortzeko. Azken horiek neurri batean soilik lortzen dira maiz, izan ere, gizarte patriarkatuak mugak jartzen dizkio emakumearen askatasunari eta edozein alorretako garapen pertsonalari (1986: 248-252).

Emakumezko heroien bigarren ezaugarria iraultzailetasuna da. Gizonezko protagonistek ere inguruko injustiziei aurre egiten dieten arren, haien eta emakume heroien mundua guztiz desberdina da eta bakoitzak etsai desberdinak suntsitu behar ditu. Emakumezko heroiak identitatearen bilaketa ingurumen bortitz batean egiten du, baina gizonei ez bezala, gizarte burgesaren indarrek sexu-rolen aurrean konformitatea agintzen diote. Emakumearen rola etxeakoandreak, emaztearen eta amaren rolaekin egon da lotua betidanik, eta hortik kanpo ez du beste paperik eduki. Behin eta berriz entzuten du etorkizunerako irudikatu dituen proiektuak gizona izango balitz soilik izango liratekeela posible. Horrez gain, emakumezkoen *bildungsroman*etan gizonezkoa irudi zapaltzailea da askotan, bere gaintetik dagoena. Ez du emakume heroia onartzen, gizarteak inposatzen dionaren aurka egiten duelako eta gizartean duen lekua uztera

ausartzen delako. Hala, *bildungsroman* femeninoetako heroi batzuk iraultzaile eta feministak izaten dira eta gizonezko heroiek ez bezala, egokitu zaien rola zalantza jartzen dute, sexu berdintasunaren inguruko galderak plazaratzen dituzte eta gizarteko egitura ororen aurka egiten dute: bikote harremanetan, karrera profesionaletan, seme-alaben auzietan, etxean duten irudian, ezartzen zaizkion inposizioen aurrean, debekatzen zaizkion aukera faltetan eta eremu publikoetan duten presentzian (1986: 248-251). Ondorioz, gizonezko heroiak auto-ezagutzaren bidea oraindik gazte denean amaitzen duen bitartean, emakume heroiak hainbeste oztopo ditu bere garapena lortzeko bidean, ezen ibilbidea amaitzerako gehienetan heldua baiten (1986: 247).

Beste ezaugarri batzuk aipatzekotan, emakumeen sexualitatearen arazoa daukagu. Gizonaren *bildungsroman*etan ez bezala, emakumeen sexualitatearen eta identitate sexualaren kontzeptuak asko azaltzen eta eztabaidatzen dira, izan ere, sexua auzi arazotsua izan ohi da heroientzat (1986: 252). Bestalde, emakumeak askotan benetako ni horren bilaketa bakardadean egin ohi du, edota beste emakume batzuen inguruan. Arrazoa: batetik, gizonezkoen munduaren begiradatik babestu nahi duelako eta, bestetik, bere iraultzagatik behin betiko erbesteratze eta isolamendura zigortua izateko arriskua duelako (1986: 248-252).

Amaitzeko, komunean edukitzen duten beste ezaugarri bat liburuetikiko maitasuna da. Bi helburuk bultzatzen dute emakumezko heroi liburuetan murgiltzera: batetik, gizonezko heroiak heziketa eskuratzeko eskubidea duen bitartean, emakumeak sarri debekatuta duelako ikastea (XVIII. eta XIX. mendeetan bereziki) eta heziketa falta horri irakurriz egiten dio aurre; eta bestetik, zapaltzen eta itotzen duen bizitza horri aurre egiteko ihesbidea aurkitzen duelako liburuetan, istorioek kanpoko mundura eramaten baitute (1986: 253).

## **2.2. Eleberri autobiografikoa**

*Bildungsromana* eleberrien marko zurrunik kanpo ere egon daiteken arren, eleberriaren izaera irekia dela eta, genero bereziki aproposa da heroiaren garapena irudikatzen. Eleberriaren barruan, hainbat azpigenerotan aurki ditzakegu *bildungsromanak*. Nolanahi ere, nobela autobiografikoan edo autobiografian aurkitzen du *bildungsromanak* bere punturik gorena, autobiografiekin eta eleberri autobiografikoekin

oro har *bildungsroman*aren forma hartzen dutelako (Rodriguez Fontela 1996: 231-268).

Autobiografiak XX. mendean eduki zuen loraldia eta goraldi hori medio, ekidinezina izan zen genero moduan definitzeko beharra sortzea. Philippe Lejeunek bere *Le pacte autobiographique* liburuan egin zuen definitzeko saiakera eta, hala, bi testu mota desberdin zituen: autobiografia eta eleberri autobiografikoa (Alberca 2007: 66). Haren hitzetan, bai autobiografietan, baita eleberri autobiografikoetan ere, autorearen eta irakurlearen arteko hitzarmen bat ematen da, non idazleak irakurleari egia esango duela azaltzen dion: “Dans mes cours, je commence toujours par expliquer qu’une autobiographie, ce n’est quand quelqu’un dit la vérité sur sa vie, mais quand il dit qu’il la dit” (Lejeune Alberca 2007: 66). Horren arabera liburu bat autobiografiatzat jotzeko ez da nahikoa egileak egia kontatzea, horrez gain irakurleari zin egin behar dio egia kontatuko duela (Alberca 2007: 66-67). Hitzarmen horretan, autoreak liburuan zehar seinale identifikagarriak eskainiko dizkio irakurleari pertsonaia bera dela argi uzteko eta eleberrian kontatzen den istorioa bere bizitzako istorioa dela adierazteko. Aldiz, autobiografia eleberrietan zehar irakurleak ez du autorea pertsonaiarekin identifikatu ahal izateko seinalerik aurkituko (Lejeune 1975: 13-46). Edonola ere, teoria horrek kritika ugari jaso zituen, ez zuelako autobiografiaren eta eleberri autobiografikoaren artean dauden aldaera edo gradu desberdinen existentzia ahalbidetzen (Rodriguez Fontela, 1996: 243). Philippe Lejeunek egindako definizio zorrotz eta behin betiko horren aurka, Georges May-en definizioa dugu. Georges Mayek joeretan oinarritzen den teoria bat planteatzen du. Bere ustez bai autobiografiak bai eleberri autobiografikoek egiara jotzeko joera dute, baina ez bata ez besteak ez du inoiz egia biribila esatea lortzen. Beste modu batera esanda, biek idazlearen bizitzako benetako esperientziak kontatzeko joera dute, baina zentsura, itzulginguru, asmatze edo moldaketa batzuk baztertu gabe (May Rodriguez Fontelan 1996: 244). Hori ardatz hartuta, autobiografia gehiago oinarrituko da egian eta eleberri autobiografikoa fikziozko elementuetan. Ondoren, bien arteko aldaerek fikziozko elementu gehiago edo gutxiago edukiko dituzte. Teoria horrek autobiografiaren eta eleberri autobiografikoaren arteko aukera mugagabeen existentzia bermatzen du, hala nola: nobela biografikoak, lehen pertsonan idatzitako eleberri autobiografikoak, goitizendun autobiografiak eta beste hainbat eta hainbat aukera (May Rodriguez Fontelan 1996: 244). Ondorengo atalean ikusiko dugunez, *Oculto sendero* aukera horien artean kokatzen den liburu da, goitizendun eleberri autobiografikoa, hain zuzen ere.

### **3. *Oculto sendero* eleberria**

*Oculto sendero Bildungsroman* bat dela baieztatzeko azterketarekin hasi baino lehen garrantzitsua deritzot Elena Fortúnen eta bere obraren inguruko aurkezpen labur bat egitea, baita eleberri autobiografikoa dela ziurtatzeko argumentuak ematea ere, lanaren helburua betetzeko berebizikoa ez izanik ere, irakurlea testuinguruan jartzen lagunduko duelako.

#### **3.1. Elena Fortúnen biografia**

Marisol Doraok, gazte eta haur literatura angloespainiarrean espezialista eta irakasleak, idatzitako *Los mil sueños de Elena Fortún*<sup>3</sup> liburuan oinarritu naiz biografia atal hau idazteko. Bertan irakur dezakegunez, Encarnación Aragoneses Urquijo (Elena Fortúnen benetako izena) Madriden jaio zen 1885ean (1999:18). Doraoren liburuko lehen kapituluetan azaltzen denez, Fortún haur ahul eta gaixobera izan zen jaiotzetik. Ama ere ahul geratu zen alaba erditu zuenean eta harrezkero bizitza osoan zehar osasun ahula eduki zuen hark ere (1999: 19-24). Osasuna zela eta Fortún haurra zenean maiz joaten ziren ama-alabak kostaldera denboraldi bat igarotzera, itsasoko uretan bainatzeak osasuna indartuko zielako ustearekin (1999: 24). 1906ean, 21 urte besterik ez zituenean, bere lehengusu Eusebio de Gorbea y Urquijorekin ezkondu zen (1999: 31). Senarra militarra izan arren, idazle bihurtzeko ametsa izan zuen betidanik. Tamalez aitaren ustetan idazle lanbidea ez zen inola ere lan serioa eta militar ikasketak egitera behartu zuen semea (1999: 31). Bikoteak bi seme izan zituen (1999: 32), baina, Doraoren hitzetan, ez ziren zoriontsu elkarrekin. Birritan egon zen Elena Fortún senarra uzteko zorian (1924ean lehenbizi eta, ondoren, 1939an, gerra zibila amaitzear zegoenean, dibortzio paperak prestatzen ari zen). Doraoren liburuan ikusi dezakegunez, Inés Field idazleari (Buenos Airesen ezagutu zuen laguna) Bartzelonatik 1951an idatzitako gutun batean bere senarrarekin zorigaitzeko zela azaltzen dio: “Me pesa, y me pesará siempre, no haberme separado de Eusebio el año 24”. Berdin urte berean Mercedes Hernández lagunari bidaltzen dion gutun batean: “Ni yo quería tener hijos (...) (y) hubiera deseado no casarme” (1999: 73). 1917an Encarna ez zen batere zoriontsu, konturatzen hasia zen

---

<sup>3</sup> Atal honetako hemendik aurrerako aipu guztiak Marisol Doraoren *Los mil sueños de Elena Fortún* liburutik ateratakoak dira, ez bada bestelakorik zehazten.

bere senarrak ez zuela bizitzari aurre egiteko behar dena eta senarrarengandik ez zuela laguntza gehiegirik jasoko jasaten ari zen egoera gogorre aurre egiterako orduan. Egun nahiz gau, amak etengabe deitzen zion telefonoz, senarrak ez zion inongo laguntzarik eskaintzen eta haurrak bere beharra zuten denbora guztian. Gauzak horrela, 32 urte besterik ez zituenean, Encarna bai fisikoki bai moralki leher eginda zegoen eta hain bakarrik sentitzen zen, ezen bere buruaz pena eta errukia besterik ez zuen sentitzen (1999: 41). Bikotearen arteko maitasun ezari oinordeko baten heriotza gehitu behar diogu, izan ere, 1920ko hamarkadan, Elena Fortúnen semeetako gazteena, Bolín, larri gaixotu zen eta, zenbait hilabete gaixo igaro ostean, 10 urteko haurra hil egin zen (1999: 49-50). 1922an senarrari Tenerifera lanera joatea egokitu zitzaion eta bikotea Kanariar uharteetara joan zen bizitzera. Bertan, Encarnación Aragoneses pixkanaka berpizten hasi zen eta ordura arte emazte onaren papera antzezten ibili ondoren, bere bidea bilatzen hasteko ordua zela konturatu zen: “Encarna se iba sintiendo cada vez más independiente (...) Estaba contenta porque había encontrado delante de ella un sendero bien trazado y una felicidad a su medida” (1999: 71). Uhartean hasi zen lehen aldiz idazten eta pixkanaka bere senarrak beti amestu izandako literatura ospea lortzen hasi zen. 1924ean, 38 urterekin, berriro penintsulara itzuli zen Encarnación Kanariar uharteetara joan zenarengandik oso desberdina zen (1999: 70). Semearen heriotza hein batean gaindituta, Fortún zoriontsu zen. Etxekoandre soil izateari utzi eta gauza berriak egiteko gogoia sartu zitzaion, bere asmoak eta ametsak asebetetzeko. Hainbat elkartetan eman zuen izen eta zenbait egunkaritan hasi zen lanean, zutabe laburrak idazten. Egunkarietako bat *Blanco y Negro* izan zen eta bertan sortu zen ondorengo urteetan Elena Fortún idazle ospetsu egingo zuen pertsonaia: *Celia*. Haren eskutik oraindik ere ezagun ditugun liburuak sortu ziren: *Celia lo que dice*, *Celia en el colegio*, *Celia y sus amigos*, *Celia novelista* edo *Celia madrecita*, esaterako. Fortún lortzen ari zen ospea zela eta, senarrak geroz eta inbidia gehiago sentitzen zuen, eta bikotearen harremana okertuz joan zen (1999: 77-81):

Al año de llegar a Canarias ganaba yo con *Blanco y Negro* mil pesetas mensuales, que entonces era mucho dinero. Entonces me empezó a odiar Eusebio, que hasta entonces siempre se había dado mucha importancia conmigo (Capdevila-Argüelles 2016: 17).

Hala, hasiera batean emazteari idaztea debekatu zion: “Inés Field concreta que su amiga tenía que escribir en el baño pues, al principio de su carrera, su marido se lo tenía prohibido” (Capdevila-Argüelles 2016: 17). Senarrak berekin zituen haserrealdiak zirela



eta, Eusebio burutik gaixo zegoela konturatzen hasi zen Fortún (gaur egun badakigu Eusebio bipolarra zela) (Capdevila-Argüelles 2016: 13). Idazlea geroz eta ospe gehiago irabazten hasi zen eta argitaletxe batek Celiaren lehen liburua argitaratzea eskaini zion: *Celia lo que dice* (1999: 82). Idazteaz gain, Encarna *Lyceum Club* deituriko elkarte baten kide bihurtu zen, emakumeen eskubideen aldeko Espainiako lehen emakume elkarte (1999: 84). Hasiera batean bere idatzietan izenordeak erabiltzen zituen arren, garai horretan hasi zen liburuak Elena Fortún izenpean sinatzen, bere senarraren *Los mil años de Elena Fortún* (1922) eleberritik ateratako izena. 1936ean, gerra zibila hasi zenean, Fortúnek *Lyceum Cluben* bidez emakumeen bizi-baldintzen alde egin zuen borroka eta inongo partidu politikoren partaide ez izanda ere, errepublikaren alde egin zuen, errepublikarrek emakumeen eta hezkuntzaren papera indartzearen alde borrokatuko zutela uste baitzuen (1999: 114). Izan ere, emakumearen egoera gerra baino lehen txarra bazen, erregimen berriarekin okerrera egin zuen. Carmen Martín Gaiteren *Usos amorosos de la postguerra española* liburuko pasarte batean irakur dezakegunez:

La posición de la mujer española está hoy como en la Edad Media. Franco le arrebató los derechos civiles y la mujer española no puede poseer propiedades ni incluso, cuando muere el marido, heredarle, ya que la herencia pasa a los hijos varones o al pariente varón más próximo. No puede frecuentar los sitios públicos en compañía de un hombre, si no es su marido, y después, cuando está casada, el marido la saca raramente del hogar. Tampoco puede tener empleos públicos y, aunque no sé si existe alguna ley contra ello, yo todavía no he visto a ninguna mujer en España conduciendo automóviles (Martín Gaité 1987: 30).

Gerraren gorabeherak medio, Madrilen, Bartzelonan eta Italian bizi izan zen, azkenik, 1939an Buenos Aireserantz abiatu zen arte, bere senarrarekin eta beste hainbat espainiar errepublikazale erbesteraturekin batera. Bertan zenbait egunkaritan eta liburutegitan ibili zen lanean eta han ezagutu zuen Inés Field, irakasle katoliko sutsua eta aurrerantzean idazlearengan izugarritzko eragina izan zuena (1999: 143-173). 1948an penintsulara itzuli zen eta behin Madrilen zegoenean senarra, Buenos Airesen geratu zena, Espainiara bueltatzea ahalbidetuko zuen amnistiaren zain geratu zen. Tamalez, ez zuen gehiago ikusi, 1949an Eusebiok Buenos Airesen bere buruaz beste egin baitzuen. 1950an, urtebete Nueva Yorken bere seme Luisekin eta haren emaztearekin bizi izan ondoren, Bartzelonara joan zen Fortún. Datozen urteetan Fortúnen osasuna pixkanaka ahultzen joan zen. 1952an Madrileko klinika batean zendu zen; 66 urte zituen (1999: 173-335).

Bere sexualitateari dagokionez, Fortún lesbiana zela susmatzen zen. Ziurrenik Inés eta Encarnaren artean harreman sentimental bat egon zen, nahiz eta oraindik ezin dugun gutiz ziurtzat jo (1999: 19). Beste hainbat emakumerekin ere harremanak eduki zituenaren susmoa dago, Matilde Ras Kataluniako idazlearekin, esaterako. *El camino es nuestro* (bi idazleek elkarri idatziko gutunen liburua) liburuan azaltzen den moduan: “Sin que sea posible concretar plenamente las auténticas dimensiones de la relación amorosa entre estas dos escritoras, pero con evidencia suficiente para definirla cómo sáfica” (Capdevila-Argüelles 2014: 16).

### **3.2. *Oculto sendero***

Marisol Doraoren liburuan azaltzen ez den arren, Dorao izan zen *Oculto sendero* eleberria ahanzturatik berreskuratu zuena. *Oculto sendero* liburuaren hasieran Nuria Capdevila-Argüellesek, eleberriaren editoreak, idatzitako sarrera labur bat dago. Bertan azaltzen da nola iritsi zen *Oculto sendero* argitaratua izatera. Capdevila-Argüellesen esanetan Marisol Doraok Anne Marie, Fortúnen erraina, bisitatu zuen Estatu Batuetan 1980ko hamarkada erdialdean. Hark bere amaginarrebaren paperez betetako bidaiapoltsa handi bat eman zion eta paperen artean mota guztietako idatzi, gutun, artikulu eta koaderno zeuden. Horien artean *Nací de pie* eskuizkribu autobiografikoa (*Oculto senderoren* aitzindaria), lehen aldiz 1987an argitaratu zen *Celia en la revolución* eleberria (Espainiako gerra zibil garaiko egoera gogorrak kontatzen dituena), eta tinta morez eta makinaz idatzitako kutsu homosexuala zuten bi eleberri zeuden. *Oculto sendero* bi nobela horietako bat dugu (Capdevila-Argüelles 2016: 12-13). Sarrera horretan bertan irakur dezakegunez, Fortúnek ez zuen inongo interesik eleberriak argitaratu zitezen, ezta inork eleberri horiek existitzen zirela jakitean ere. Izan ere, hil baino hilabete batzuk lehenago, gutun bidez erregutu zion Inés Fieldi Buenos Airesen utzi zituen eskuizkribu batzuk erre zitzala. Argi dago, baina, lagunak ez zuela idazlearen azken nahia bete (Capdevila-Argüelles 2016: 18).

### **3.3. *Oculto senderoren* elementu autobiografikoak**

Aipatu bezala lan honetan aztertzen ari garen obra eleberri autobiografikoa da. Hori baieztatzeko Manuel Albercaren *El pacto ambiguo. De la novela autobiográfica a la*

*autoficción* liburuan oinarritu naiz. Albercaren hitzetan: “Para poder hablar de novela autobiográfica, (...) es necesario que (...) se perciban la historia y su protagonista o los personajes de ésta, como una proyección, encubierta y disimulada, de la propia vida y personalidad del autor” (Alberca 2007: 113). *Oculto sendero* eleberrian nekez aurkituko dugu pertsonaia idazlearekin argi lotuko duen seinalerik, izan ere, eleberri autobiografikoak eskaintzen dituen aukera anitzen artean, aukera anbiguoena eta ezkutatuena erabili zuen Fortúnek: pertsonaiak ez du idazlearen izen bera eta lehen pertsonan kontatzen du istorioa. Hala, narratzailea anonimotasunaren atzean ezkutatzen da eta irakurlea zalantzati uzten du, liburua autobiografia den ala eleberria den jakiteko aukerarik gabe (Alberca 2007: 99-100).

Hori kontuan izanda, *Oculto sendero* eleberri autobiografikoa dela baieztatzea ez liteke erraza. Hala ere, Albercaren hitzetan: “El concepto de novela autobiográfica, aparte de algún guiño o sugerencia del narrador en su relato para orientar al lector o para despistarle, exige el conocimiento de la biografía del novelista a fin de determinar el autobiografismo o no del relato” (Alberca 2007: 99). Behin Elena Fortúnen biografia aztertu ondoren, *Oculto sendero*ko María Luisarena (eleberriko protagonista eta Elena Fortúnen “alter ego”a) aztertuko bagenu, konturatuko ginateke eleberriak izan baduela Encarnación Aragonesesen bizitzarekin antzekotasunik.

Elena Fortúnek 38 urte zituen 1924ean liburu sekretu hau idatzi zuenean eta ordura arte edukitako esperientzien eta bizipenen isla da (Capdevila-Argüelles 2016: 57). Eleberrian María Luisa Arroyoren istorioa kontatzen da, familia klasiko, umil eta tradizionalatik aldendu eta ezezagun zuen modernitatea eta espero gabeko askatasuna aurkitzen dituen neskatilaren bizitza. Bidaia horretan bere homosexualitatea aurkitzen du eta bere ahalmen artistikoa eta intelektuala ezagutzen eta jorratzen ditu. María Luisa Arroyo Elena Fortúnen “alter ego”a dela ziurtatzeko eta *Oculto sendero* eleberri autobiografikoa dela baieztatzeko protagonistaren eta idazlearen bizitzen arteko antzekotasunak alderatzea besterik ez da behar. Horrez gain, Elena Fortúnek Inés Fieldi *Oculto sendero*ren lehen zirriborroa erretzeko eskatu izanak dagoeneko pista argia eskaintzen digu: idazleak berebiziko interesa zuen eleberri hori ezkutatzean. Albercaren hitzetan: “El camuflaje tras una fórmula de ficción indicaba que el autor no podía, por el contexto señalado, o no quería, por pudor, arrosar los inconvenientes y molestias que la apuesta autobiográfica lleva consigo” (Alberca 2007: 104).

*Oculto senderon* Elena Fortúnek azterketa pertsonal bat egiten du, auto-ezagutza prozesu bat, eta mina eta erruduntasuna dira eleberrian nagusi. Bi emakumeen biografien arteko berdintasunei dagokienez, María Luisa, Elena Fortún bezala, haur ahul eta gaixoti gisa aurkezten zaigu eleberrian. Osasuna sendatze aldera, neskatilak bi uda igarotzen ditu kostan itsasoan bainatzen. Esperientzia hori ziurrenik idazlearen oroitzapenen isla da, Marisol Doraori esker badakigulako Elena Fortún ere kostaldera joaten zela amarekin. María Luisaren ama ere gaixo dago ia eleberri osoan zehar eta protagonistaren hitzetan argi ikusten da ama zaintzea zama astuna dela. Biografiaren atalean ikusi dugunez, Elena Fortúnnek ere sufritu zuen ama zaintzen. Bi emakumeak ezkontzeko arrazoia gizartearengandik eta, batik bat amarengandik, jasotako presioa da. Bi senarrak haien emazteen izaera indartsuaren itzalean biziko diren gizagaixoak dira, eta ez Arroyo, ez Fortún, ez dira zorioneko izango beren bikoteekin. Jorgek, María Luisaren senarrak, etxean geratuko den emazte bat nahi du, haurrak zaintzen eta etxea txukuntzen. María Luisa baina, Elena Fortún bezala, ez dago horretarako prest. Idazlearen moduan, eleberriko protagonistak ere alaba galtzen du eta esan genezake pasarte horren bitartez Fortúnek semea galdu zuenean edukitako esperientzia gogorra irudikatzen duela. Min horretatik bizirik ateratzeko margotzen hasten da protagonista, Elena Fortún idazten hasi zen moduan. Gainera, idazlearen eta bere senarraren arteko harremanak okerrera egin zuen bezala, María Luisaren eta Jorgeren harremana ere okertzen doa protagonistaren margolanak ospea lortu ahala. Hala, María Luisa, Elena Fortúnek idazteko egiten zuen legez, komunean ezkutatuko da margotzeko. Izaera indartsua eduki arren, bi emakumeek, Fortúnek eta Arroyok, egiten duten lana beren senarrenen azpitik dagoela uste dute. Ikusitakoak ikusita, zalantzarik gabe esan dezakegu Jorge pertsonaiak Eusebioarengan duela oinarria. Sexualitateari dagokionez, Elena Fortúnen bizitza sexualaren inguruan egon ziren susmoak baieztatzen dira *Oculto senderon*. María Luisa haurra eta gaztea den bitartean bere homosexualitatea oso argi ikusten ez bada ere, behin helduarora iritsita hainbat emakumerekin laguntasuna baina zerbait gehiago diren harremanak edukitzen ditu. Protagonistaren homosexualitatearen berpiztea alaba hil eta senarrarekin Kanariar uharteetara bizitzera jotzen denean gertatzen da. Uharteek protagonistaren sexualitatearen kontzientziazio prozesuan duten papera ziurtasun osoz Elena Fortúnek 20ko hamarkada hasieran uharteetara joan eta bertan edukitako esperientzian dago oinarrituta (Capdevila-Argüelles 2016: 17).

Gauzak horrela, inongo zalantza izpirik gabe baieztatu dezakegu Elena Fortún bere

bizitzan oinarritu zela *Oculto sendero* idazterako orduan eta protagonistaren izena edota bere bizitzako zenbait elementu aldatu bazituen ere (idazle ordez margolari izatea, bi semeren ordez alaba bakarra edukitzea...), María Luisa Arroyo Elena Fortún bera dela. Bere obra intimoena den honetan, Fortúnek bere identitatearen zatirik arazotsuena arakatu zuen: bere lesbianismoa (Capdevila-Argüelles 2016: 8). Idazleak homosexualitate femeninoa ulertzeko bidean bultatzen du *Oculto sendero* protagonista, nahiz eta sexualitatearen ezagutza zatikakoa besterik izan ez, gizarteak benetako askatasun sexuala lortzea mugatzen baitio, bere garaian Fortúni mugatu zion moduan (Capdevila-Argüelles 2016: 9). Protagonistak dena utzi eta Ameriketara bidea hartzen duenean amaitzen da liburua. Eleberriak ezkutuko elementu autobiografiko mordoa duenez, amaiera horretan Fortúnen grina eta etsipena sumatu dezake irakurleak, izan ere, bere bizitzaren agintea hartzeko prozesuaren erdibidean geratu zen Fortún, nahiz eta bera ere, María Luisaren antzera, bueltako txartelik gabe joan zen behin Argentinara bidean.

#### **4. *Bildungsroman* ezaugarriak *Oculto sendero* eleberrian**

*Bildungsroman* femeninoaren ezaugarriak sakonago aztertze aldera, laugarren atal honetan lanaren helburu nagusiari ekingo zaio: *Oculto sendero* eleberria *bildungsroman* literatura azpigeneroaren barruan kokatzen dela baieztatzea. Horretarako, nobela oinarri hartu eta nire irakurketatik abiatuta, lan honen bigarren atalean aipaturiko ezaugarri bakoitza liburuko gertaera, elementu edota pertsonaiaren batekin lotuko da eta eleberrian bertan ateratzen diren esaldiak ekarriko dira adibide gisa.

Datarik azaltzen ez den arren, eleberri autobiografikoa denez, badakigu liburua XX. mendeko lehen erdian kokatzen dela. *Bildungsroman* azpigeneroan gizartearen pentsamenduak, ohiturek eta ideologiak heroia-aren garapen pertsonala mugatzen dute. Esan gabe doa, emakumeen kasuan, gainera, gizartearen eragina gogorragoa eta zuzenagoa dela, emakumeak berak gizartean duen lekua gizonarena baino finkoagoa delako eta askatasun gutxiago duelako. Hortaz, garrantzitsua deritzot *Oculto sendero* idatzi zen garaiko testuinguruan kokatzea geure burua eta, horretarako, azterketa egiterako orduan Nerea Arestiren *Médicos, donjuanes y mujeres modernas* liburuan oinarritu naiz.

#### 4.1. Heroiaren identitate galera

*Oculto sendero*<sup>4</sup> eleberrian María Luisa izeneko neskatila baten irudiaren atzean “ezkutatzen” da Elena Fortún eta haren bizitza kontatzen du lehenengo pertsonan, 7 urte dituenetik 38 urte dituen arte. Bigarren atalean aipatu bezala, *bildungsroman* femeninoetan bereziki garrantzitsua izaten da heroien haurtzarora kontatzea, orduan hasten baita protagonistaren identitate galera. Halaxe ikusi dezakegu *Oculto sendero* eleberrian ere. María Luisa neska ameslaria, irudimentsua, ikusnahia eta mugitua da, (“[Me gusta jugar] al escondite, a los ladrones, al torito sentao... a juegos de correr... a estar quieta no quiero” [2016: 130]) eta txikia denetik argi geratzen da ez duela emakumearengandik espero den “irudi femeninoa” islatzen: kezka intelektualak ditu eta emakumeek debekatuta dituzten ametsak (“[Cuando sea mayor quiero] vestirme de hombre y montar a caballo” [2016: 115]). Hori dela eta, jaiotzetik entzungo du behin eta berriz emakume “on” baten betebeharrak zein diren: femeninoa, isila eta obediente izatea, seme-alabak zaintzea, gizonei aurka ez egitea, etxea txukuntzea, sexu-harremanetarako beti prest egotea... Hori lortzeko bere benetako izaera aldatu beharko duela esaten diote (“Hija, eres muy revoltosa y eso tienes que remediarlo”, “¡no seas loca criatura! ¡Dios mío qué exaltada eres! ¿Qué va a ser de ti, si sigues así siempre?” [2016: 128 eta 136]). Beste neskatila batzuen eredu ere jarraitzeko esaten diote (“Rositina era el ejemplo que yo debía seguir”, “¡Es una niña encantadora! (...) ¡Será una mujercita de su casa deliciosa!” [2016: 208]). María Luisak, ordea, badaki neskatila horiek ez direla zoriontsu esandakoari men egiten (“Pero yo sabía lo que pasaba en su alma infantil, veía claro en sus ojos de niña y comprendía que las alabanzas constantes de la mamá y la burda ingenuidad masculina de su padre la obligaban a comportarse cada vez más en mujercita, cada vez más fuera de su verdadera naturaleza y sus gustos verdaderos” [2016: 208]).

#### 4.2. Heziketaren auzia

Lanaren bigarren atalean aipatu den legez, Ester Kleinbord Labovitzen hitzetan heroi askok komunean edukitzen duten ezaugarrietako bat heziketarekiko etsipena da eta aztertzen ari garen eleberrian ere ikusi dezakegu ezaugarri horren nabardurarik. Gure

---

<sup>4</sup> Laugarren ataleko hemendik aurrerako aipu guztiak Elena Fortúnen *Oculto sendero* eleberrietik ateratakoak dira, ez bada bestelakorik zehazten.

heroiak ez du batere gustuko eskolara joatea eta maiz nazkatu eta aspertu egiten da (“¡Si hubiera fuego en el colegio!, ¡Si cayera un rayo!, ¡Si ahorcaran a la profesora!” [2016: 182]), irakaslearen haserrea sortarazten duena (“¡María Luisa Arroyo! De rodillas por habladora. Es que no calla un momento esta criatura.” [2016: 179]). Ikasgaiak ez ditu batere gustuko, gehienetan aspertu egiten da eta joste-lanak (liburuan *labores de aguja* gisa izendatuak) egiten bereziki traketsa da (“Doña Margarita dudó un momento si dejarme allí o mandarme con las medianas, dada mi poca facultad para las labores de aguja” [2016: 173]), maiz atsekabe handia sortarazten diona (“Al volver a mi sitio había olvidado todo y no sabía por dónde meter la aguja. ¡Una inmensa desolación se apoderó de mí!” [2016: 174]). Gainerako ikaskideekin duen harremanak ere arazoak sortzen dizkio protagonista gazteari. Nesken eskola batera joaten da eta gainerako neskek bere laguna izan nahi duten arren, María Luisak neskaitila jakin batengan besterik ez du pentsatzen (“A mí no me importaba mi éxito. Pilar era la llama abrasadora que cegaba mis ojos y en torno de la que daba vueltas mi alma como una mariposa atontada” [2016: 181]). Hain da handia sentitzen duen obsesioa, ezen klase-kide batek Pilarren lagun mina bera dela esaten dionean eskolako eskaileretatik behera bultzatzen baitu eta, hala, eskolatik kanporatzen dute. Behin eskolatik botatzen dutenean ez da berriro itzultzen. Hala ere, kanporatu izan ez balute ere, ziurrenik lehen hezkuntza amaituta ez zen berriro eskolara itzuliko, izan ere, Nerea Arestiren hitzetan (*Médicos, donjuanes y mujeres modernas*): “El acceso de las mujeres a la educación superior era considerada por muchos como un ideal simplemente absurdo” (Aresti 2001: 47).

### 4.3. Gizartearen eragina heroiaren garapen pertsonalean

Identitate galerari lotuta pertsonaiaren inguru soziala dugu. Eleberrian zehar Fortúnek sakonki azalduko du garaiko gizartea eta emakumeen aurkako indarkeria: ezkontza erakunde esklabizatzaile gisa aurkeztuko du, emakume gorputza gizonari saltzea zilegi egiten duena, eta sexua ekintza zikin bezala deskribatuko du, emakumearen plazerarekin inongo zer ikusirik ez duena.

Norbere identitatearen bilaketan gustuko duena eta gustuko ez duena desberdintzen hasten da protagonista. Bere ametsak eta esperantzak bete nahi ditu, baina saiatze horretan errealitatearekin egiten du topo. Goian aipatu moduan Ester Kleinbord Labovitzek errealitate horren barnean familia eta garaiko pentsamendua daudela dio.

Eleberri honetan ere familiak, eta bereziki María Luisaren amak, garrantzia handia du, gizarteak inposatutako emakume “on”aren irudia alabarengan finkatzen dela bermatzen baitu. Ama da María Luisaren bizitzan eragin gehien duen pertsona eta ez da erreza protagonistaren alde ala kontra dagoen esatea. Argi dago alabaren ametsen aurka dagoela, ametsok emakumeari inposatzen zaizkion betebeharren kanpo daudelako. Hala ere, alaba babestea duela helburu esan genezake, izan ere, alaba “bide onetik” joatea nahi du, bere “berezitasunak” bizitzan arazorik eta oinazerik sor ez dakion.

María Luisak gizartearen aurka duen borroka gogorrena genero desberdintasuna da. Garaian gizonen eta emakumeen arteko harremanak arau multzo batzuen arabera eraikitzen ziren, non parte bakoitzak eskubide eta betebeharrak jakin batzuk zituen (Aresti 2001: 11). María Luisa txikitatik konturatzen da gizonen eskubide gehiago dituztela eta askeago bizi direla: nahi duten bezala jolastu dezakete, arropa erosoak dituzte, eta aske dira nahi dutena esan eta pentsatzeko (“¡Yo sí que les envidiaba! ¡Su libertad, sus trajes sencillos, estrictos, sin ninguna fantasía, su derecho de comportarse naturalmente, sin afectación!” [2016: 267]). Neskatila “on”entzat, berriz, zenbait akats barkaezinak ziren (“Hoy he visto a tu hija que venía del colegio sin guantes y saltando en un pie por medio de la calle” [2016: 159]). Emakumeen heziketak ezjakintasuna (“¡Chica, eres de una ignorancia divina! Así me gustan a mí las mujeres” [2016: 268]), etxeko lanetako trebetasuna, eta dudarik gabe, amatasuna zituen helburu:

La evolución de la cuestión social de la maternidad durante las tres primeras décadas del siglo XX debe ser entendida como un fenómeno de continuidad y renovación al mismo tiempo. La consideración de la maternidad como elemento central del ideal de feminidad, idea dominante en los años veinte y treinta, enlazaba con una larga tradición ideológica que unía el destino de las mujeres, ricas y pobres, a la procreación (Aresti 2001: 163).

Eta hala ikusi dezakegu eleberrian ere:

¡Pero querrá usted casarse!, insistía la señorita. Para la mujer no hay más camino que el matrimonio. (...) Pues en el matrimonio tendrá usted que llevar las cuentas de la casa, administrar el dinero que le entregue su marido, coser la ropa para que dure más y la nueva para que salga más barata, entretener a su marido tocando una piececita al piano... (2016: 308).

Helburu sakratu horretatik aldenduko duen oro (irakurtzea edota margotzea, esaterako) onartezina da (“Y las mujeres cuanto más humildes mejor, y cuanto menos marisabidillas, mejor, que para cuidar del marido y criar hijas no hacen falta literaturas”, “el hogar y la maternidad llenan los principales años de vuestra vida y no hay lugar para



los estudios lentos y concienzudos, que os apartarían de la verdadera finalidad de vuestra naturaleza femenina” [2016: 256 eta 316]). Emakumearen lana, Monique Witting-en *El pensamiento heterosexual y otros ensayos* liburuan azaltzen denez, ama izatea, etxean egotea eta familia zaintzea da:

La sociedad (...) impone a las mujeres la obligación absoluta de reproducir “la especie” (...). Hay que incluir aquí la apropiación del trabajo que está asociado “por naturaleza” a la reproducción: criar a los hijos, las tareas domésticas (Witting 2006: 26).

Edozein erako ikasketak emakumeen gaitasunetatik kanpo daude eta, horregatik, amak irakurtzea ukatzen dio (“Mamá no me deja leer más que los domingos” [2016: 256]). Ondoren, ezkondu ostean, senarrak ez dio margotzen uzten eta ezkutuan ibili behar da (“Los pinté escondiéndome de Jorge, esperando que se fuera al instituto, y recogiendo las pinturas antes de que volviera” [2016: 387]). Emakumearen bizitzak zerbitzu helburu argi bat duela ohartuko da: anaiei, gurasoei eta, bereziki, senarrari. Witting-en hitzetan ikus dezakegunez, gizarte patriarkatuan ezkontzak senarrari emaztearen jabea izateko ahalmena ematen dio:

Los hombres se apropian de la reproducción y la producción de las mujeres, así como de sus personas físicas por medio de un contrato que se llama contrato de matrimonio (Witting 2006: 27).

Gainera, emakumea bigarren maila batean dago gizartean eta zenbait gauza egiteko ezgai dela pentsatzen da: “En la sociedad española de principios del siglo XX era común pensar que las mujeres eran inferiores a los hombres. (...) Supuestamente incapaces para labores que solo el hombre podía desempeñar” (Aresti 2001: 163). Hori dela eta, gainerako gizonen antzera, Jorge ere bere gizontasun eta ohorea babesten saiatzen da María Luisari aginduak emanaz (“Y te prohíbo que continúes con esa amistad. Es decir, tú puedes hacer lo que quieras, que eres muy dueña, pero atente a las consecuencias” [2016: 313]). Gizonen ohorea iraindua sentitzen emakumeek gizonei egokitutako pribilegioak bere egiten zituztenean: “Nuestra dignidad de varones se sentía ofendida si trataban las mujeres de intervenir en los asuntos públicos o ejercer una profesión liberal” (Aza Arestin 2001: 164). Horregatik, Jorgek ez du jasango María Luisaren izaera eta dohain artistikoak bereen gainetik egotea (“Jorge (...) no pintaba ya. Por mi parte, y escondiéndome de él, conseguía algunos pequeños trabajos para revistas, que al verlos reproducidos, le sumían en varios días de silencio enconado” [2016: 443]). Bizitza osoan zehar egingo dio María Luisak patriarkatuari eta sexu-rolei aurre (“¡No me pienso casar nunca!”, “¡Si yo no quiero ser una madre de familia! ¡Si no me quiero

casar, ni estudiar piano, ni coser, ni hacer cuentas...! Solo quiero leer (...) Pero no se lo puedo decir a nadie porque todos se enfadan, y me riñen” [2016: 221]). María Luisak badaki bera ez dela inguruan dituen emakumeak bezalako: ez du ezkondu nahi (“Fui contenta, pero enseguida comprendí que yo estaba fuera de ambiente y que era un desastre en esas reuniones. A todas, menos a mí, las unía un obsesionante pensamiento común: el matrimonio” [2016: 263]) eta bere interes intelektualak beste emakumeengandik aldentzen dute (“Y yo me sentía consciente de mi inferioridad ante aquel grupo de señoritas cursis, ignorantes, sin inteligencia ni imaginación, que me despreciaban y se burlaban de mí” [2016: 269]). Bere bidea ez da ezkondu eta amaizatea, beste zerbait egiteko jaioa da (“Sí, puede ser, el de otras mujeres puede que lo sea, pero el mío no, de eso estoy segura” [2016: 308]).

Gure heroia apurka-apurka ohartzen da badirudiela emakumeei ez zaiela axola sexuen arteko desberdintasuna edota, axola bazaie ere, hain dute onartua, ezen ez duten haren aurka borrokatzen (“¡Así vivían todas las mujeres! El orden establecido por la sociedad era este y no otro” [2016: 304]). Gauzak hala, gizartearengandik eta ingurukoengandik jasotzen duen presioa ikusita, ez da harritzekoa María Luisak berarengandik espero dena onartzen amaitzea, eta inoiz desira izan ez zituen horiek egitea: gizon batekin ezkondu, berekin oheratu, ama izan, senarraren zerbitzura egon, margolari bokazioari agur esan... (“Determiné con buena voluntad adaptarme a la vida, a la doble vida que vive todo el mundo, y entrar, al fin, en la corriente humana y en la suave paz hogareña” [2016: 355]).

#### **4.4. Sexualitatearen arazoa**

*Bildungsroman* femeninoak aztertu diren atalean ikusi dugunez, Ester Kleinbord Labovitz en arabera emakumeek sarri eztabaidatzen dute sexualitatearen arazoa. *Oculto sendero* ezin liteke eztabaida horren adibide argiagoa izan. Sexuaren inguruko ezagutza erdizka jasoko du María Luisak, nerabezaroan beste neskekin partekatuko dituen sekretu “lotsagarri” eta “esanezin”en bidez (“Dos bonitas niñas (...) me dijeron (...) que hay que tener mucho cuidado con los hombres... Bastaba con sentarse al lado de uno de ellos en el tranvía, para que al poco tiempo se hinchara la barriga y naciera un niño...” [2016: 147]). Sexualitateak betidanik sorraraziko dio nazka eta lotsa, horren adibide dugu gurasoen sexualitatea deskubritzen duen unea (“A mi padre había dejado de verle

como siempre le había visto, y me puse encarnada hasta los ojos cuando me besó” [2016: 142]). Bere ezkontza gauean bertan ere sentitzen du higuin hori (“Al día siguiente de la boda me desperté cansada y dolorida, ¡Tanta emoción, tan exaltada poesía, para tan pobre y vulgar resultado!”), “Mi cuerpo, intacto la víspera, se sentía ultrajado” [2016: 302]).

Esan bezala, sexualitateari buruzko gogoetak ugariak dira eleberrian zehar. Eleberrian plazer femeninoa, baita ezkonduetako bikoteen artean ere, ez da sexuaren helburuetako bat. Sexua “ezkontzako betebeharrak” soila da (“Pues hija, porque los hombres tiene sus necesidades” [2016: 261]). Sexuaren auziari protagonistak homosexualitatearen inguruan dituen zalantzak eta larritasunak gehitu behar dizkiogu. Lesbiana hitza esplizituki erabiltzen ez duen arren, bere hitzetan erraz interpreta daiteke emakumeengana sentitzen duen desira. Homosexualitatea bereziki bistakoa egiten duena txikitatik emakumeen edertasunarekiko duen obsesioa da:

De pronto dejé de ver todo lo que me rodeaba para mirar la escalera de mármol por donde descendían dos muchachas... dos señoritas, decía yo. ¡Dios mío, qué señoritas! (...) Un perfume delicado nos envolvió. Yo lo aspiré emocionada sintiéndome como en una nube. ¡Qué manos tenían aquellas dos señoritas!” (2016: 81).

Las señoritas que siempre había visto en traje de calle, ahora llevaban vestidos extraordinarios y escotadísimos. Por lo que se veía que no tenían la carne como todo el mundo sino de precioso color de cera pálida, o de pétalos de rosas. ¡Qué guapísimas me parecieron!” (Fortún 2016: 145).

Nolanahi ere, protagonistari halako zirrara eta interesa sortzen dioten emakume horiek ez dira bere inguruko helduen gustukoak eta María Luisa ohartzeko emakume horiek gizartean duten lekua arazotsua dela:

“En esos sitios” dijo mi padre, “tienen que admitir a todo el mundo”. “Pero, ¿qué es eso?”, volvió a preguntar mi madre, “parece una mujer disfrazada, pero que no tiene pelo, ni pendientes. ¡Qué cosas, señor!” (2016: 82).

Porque eso de ir vestida de hombre con la falda hasta la pantorrilla, y tan pintadas, y fumar en público... y dos chicas tan jóvenes sin famili. ¡Vamos, que no! Que hay cosas por las que yo no paso... (2016: 85).

Bestalde, sexualitate maskulinoa krudela iruditzen zaio, gizonezkoek asebate behar duten behar kontrolaezina. Heltzen joan ahala emakumeak sexuan ere gizonaren esanetara egon behar duela ohartzeko eta gizonenganako menpetasun horrek eta gizonezkoen gorputzen aurrean sentitzen duen desira faltak higuina sentiarazten dio

(“¡Quién era él para pensar en la intimidad de mi cuerpo y de mi pensamiento! ¡Qué asco, Señor, qué asco!” [2016: 253]). Hala ere, pixkanaka bere burua eta desira sexualak hobeto ezagutzen hasten da eta gizonezkoak gustuko ez dituela ohartzen da (“Pues que a mí no me gustan los hombres” [2016: 301]). Horrek larritu egiten du eta liburuaren bukaera aldera medikura joaten da “gaixotasuna” sendatzeko. Medikua aurrean lotsagorrituta behin edo behin senarrarekin ohean plazera sentitu duela onartzen duen arren, sexuak nazka ematen diola esaten dio (“Me parece un acto contra naturaleza”, “me siento ultrajada, siento el mismo horror que si me hubiera violado a la fuerza” [2016: 431 eta 432]). Medikua psikiatra batengana joateko aholkatzen dio eta emakumeei dagozkien betebeharrak egitera mugatzeko. Hala, kanpoko irudia aldatuta, barneko sentimenduak aldatzeko gai izango delako (“Por el pronto, deseche usted esos trajes masculinos, pinte poco, ocúpese de la casa (...) (y) llegará a sobreponerse al desequilibrio de su naturaleza” [2016: 433]).

*Bildungsroman* femenino askotan gertatzen den moduan, María Luisak ere garapen pertsonala eta sexualitatearen ezagutza emakumeen artean lortzen du. Askok dira *Oculto sendero* azaltzen diren emakumeak, narratzailearengan eragina dutenak eta bere identitate sexuala aurkitzen lagunduko diotenak: Dulce Nombre, María Luisaren lehen maitasuna; Consuelo, María Luisa bereziki erakartzen duen koinata ederra; Julieta poeta misteriozkoa, liburuaren izenburuaren bide ezkerrean (*oculto sendero*) horretaz hitz egingo diona; izeba Teresa eta izeba Manuelita neskazahar biziak, bere amak baino maiteago izango dituenak; Florinda emakume exotiko eta erakargarria, María Luisaren lehen maitalea; Carmenchu medikua eta Rosario abokatuak, boteretsuak, azkarrak, modernoak eta lesbianak biak...

Emakumeekin dituen harreman sexualak oso inplizituak badira ere, behin alaba hil ostean, izan baditu harremanak. Oro har, argi dago gizarteak inposatutako irudiarekin apurtzea zaila litekeela edozein emakumerentzat. Haatik, are eta zailago, ia ezinezko akaso, izan liteke lesbiana batentzat, emakume izateaz gain, naturaz kontratatzat jotzen zen norabide sexualaren pisua baitzuen bizkar gainean.

#### **4.5. Heroiaren auto-ezagutzaren amaiera berantiar eta behartua**

Ikusi dugunez, María Luisaren auto-ezagutza hasiera batean nahiko lotsatia eta zalantzatia da. Gainera, Rodríguez Fontelaren liburuan azaltzen denez, askotan

emakume protagonistak ez du bere nahien eta errealtateren arteko gatazka konpontzen eta ez du bere identitatea guztiz garatzea lortzen. María Luisak lortzen duen garapen pertsonala ere ez da guztiz osoa eta bukatua. Haatik, amaiera zoriontsua izan ez arren, bai esan genezake protagonistak lortu duela bere bidea aurkitzea:

Los míos son esos que despreciáis, (...) los parias de una sociedad normal que no tiene otro fin más que reproducirse. (...) Ellos son mis compañeros de camino y me voy con ellos (2016: 494).

Senarra utzi eta, gizonezko traje bat soinean, Ameriketara alde egiten du bizitza berri baten bila. Rodríguez Fontelak aipatzen duen bukaera behartuaren adibide garbia dugu hori. Eleberriaren bukaeran María Luisak hein batean bere desira sexualaren eta buruaren jabe izatea lortzen duela sumatzen dugu. Nolanahi ere, norbanakoaren autoezagutza prozesua bizitza osoan zehar egiten den eboluzioa denez, bat bateko amaiera horrekin ez dakigu zenbaterainoko garapena lortuko duen María Luisak hil aurretik. Bestalde, lehenago aipatu dugun bezala, Labovitzek *bildungsroman* femeninoek amaiera berantiarra dutela dio eta teoria horren adibide ere badugu *Oculto sendero*. María Luisak ez du bere garapen pertsonalaren prozesua heldu izan baino lehen amaitzen eta Ameriketara ihes egiten duenean 38 urte ditu dagoeneko.

## 5. Ondorioak

*Bildungsroman* literatura azpigeneroa azaldu eta bere ezaugarriak *Oculto sendero* eleberrian bilatu ostean, egindako azterketatik ateratako ondorioak azaltzea besterik ez da geratzen. Lanaren helburu nagusia Elena Fortúnen *Oculto sendero* eleberria *bildungsroman* bat dela baieztatzea izan da. Horretarako, hasieran *bildungsroman* azpigeneroa definitu da eta ezaugarriak aipatu dira. Emakumeen *bildungsroman*en inguruan adituek idatzitako hitzak irakurri eta gero jakin ahal izan dut badagoela emakumeen eta gizonezkoen lanen artean alde nabaria, eta desberdintasun horiek ere azaldu dira zati teorikoan.

Teorian landutakoa praktikara ekarri da eleberria aztertu dudatan atalean. Azterketa egin ondoren, argi geratu da aztergai izandako eleberria *bildungsroman* adibide bikaina dela, literatura azpigeneroaren elementuz gainezka baitago eta bere ezaugarri oro biltzen baitu. Gogora ditzagun, horretarako, labur, *bildungsroman* femeninoen ezaugarriak: emakumeen identitate galera, iraultzailetasuna (hein batean bada ere), sexualitatearen ausia, heziketaren arazoa, gizartearen eragina eta gizonenganako menpekotasuna, oro

har. Eleberriko protagonistak aipatutako ezaugarri horiek guztiak biltzen ditu eta emakumeek XX. mendeko lehen hiru laurdenetan jasandako errealtate gogorraren irudi zehatz bat eskaintzen digu. Esan beharrik ez dago, gainera, heroia lesbiana izateak bere garapen pertsonalaren bidean eragin nabarmena duela eta, hala, jasandako zapalkuntza bikoitz hori azaltzen da liburuan: emakume izateagatik jasandakoa, batetik, eta lesbiana izateagatik jasandakoa, bestetik. Gauzak horrela, *Oculto sendero* azpimarratu beharreko eleberria dela iruditzen zait, emakumeek orain dela ez hainbeste denbora jasandako indarkeriaren irudikapen bikaina baita.

Bestalde, Elena Fortúnen liburua eleberri autobiografikoa ere badela baieztatu da lanean. Horretarako, batetik Elena Fortúnen, eta bestetik María Luisa Arroyoren (eleberriko protagonista) biografiak azaldu dira eta, ondoren, haien artean alderatu. Bi biografien alderaketan aztertutako datuak kontuan hartuta inongo zalantzarik gabe ziurra daiteke Fortúnen eleberria guztiz autobiografikoa dela, eta fikziozko baliabideak erabili baditu ere (izen bera ez duen protagonista, lehen pertsonan hitz egiten duena) ezin uka María Luisa Elena Fortún bera dela. Alderaketan ikusi dugunez, eleberria idazterako orduan bizitako esperientzia pertsonalak hartu zituen oinarritzat Fortúnek: bere familia, ezkontza, seme-alabak, amets eta anbizioak..., eta fikziozko elementuak gehitu zizkion ondoren.

Ez nuke lana amaitutzat jo nahi azken hamarkadetan feminismoaren auziak emandako gorakada aipatu gabe. Aintzat hartzekoa da feminismoa geroz eta gehiago indartzen ari den gaia dela, eta horrek historian zehar isildua izan den literaturaren alderdia apurka argitara ateratzen hastea eragin du, baita egun emakumeak literaturan, beste hainbat alorretan bezala, duen presentzia handitzea ere. Hortaz, ez da harritzekoa bere garaian argitaratzera ausartu ez zen eleberri horrek egun, idazlea zendu eta 64 urte geroago, Fortúnek aurreikusi gabeko oihartzuna lortu izana. Azken hamarkadetan emakumeak gizartean duen lekua nabarmen hobetu izanak etorikizunari begira itxaropena ematen du, eta agian, biharko egunean emakumeen lumetatik sortuko diren *bildungsromanek* beren garapenean oztoporik jarriko ez dien gizarte bat irudikatuko dute.

## BIBLIOGRAFIA

ALBERCA SERRANO, Manuel (2007): *El pacto ambiguo: de la novela autobiográfica a la autoficción*. Madrid: Biblioteca Nueva.

ARESTI, Nerea (2001): *Médicos, donjuanes y mujeres modernas: los ideales de feminidad y masculinidad en el primer tercio del siglo XX*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. Argitalpen Zerbitzua.

CAPDEVILA-ARGÜELLES, Nuria (2014): “Introducción”. In: Elena Fortún y Matilde Ras, *El camino es nuestro*. Madrid: Fundación Banco Santander.

CAPDEVILA-ARGÜELLES, Nuria (2016): “Prólogo”. In: Elena Fortún, *Oculto sendero*. Sevilla: Renacimiento.

DORAO, Marisol (1999): *Los mil sueños de Elena Fortún*. Cadiz: Servicio de Publicaciones de la Universidad de Cadiz.

FORTÚN, Elena (2016): *Oculto sendero*. Sevilla: Renacimiento.

HIRSH, Marianne (1979): “The novel of Formation as Genre: Between Great Expectations and Lost Illusions”. In: *Genre*, 12, 3, 293-311 orr.

LABOVITZ, Ester Kleinbord (1986): *The myth of the Female Heroine. The Female Bildungsroman in the Twentieth Century. Dorothy Richardson. Simone de Beauvoir. Doris Leesing. Christa Wolf*. New York. Berna. Frankfurt: Editorial Peter Lang.

LEJEUNE, Philippe (1975): *Le pacte autobiographique*. Paris: Seuil.

MARTÍN GAITE, Carmen (1987): *Usos amorosos de la postguerra española*. Barcelona: Editorial Anagrama.

RODRIGUEZ FONTELA, María de los Ángeles (1996): *La novela de autoformación. Una aproximación teórica e histórica al “Bildungsroman” desde la narrativa hispánica*. Kassel: Edition Reichenberger.

WITTING, Monique (2006): *El pensamiento heterosexual y otros ensayos*. (Javier SÁEZ-ek eta Paco VIDARTE-k itzulia) Madrid: Egales.